

DEIALDIA, INDUSTRIA-INGENIARI TEKNIKOEN 3 PLAZA LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO. ANTONIO IZQUIERDO SOMOVILLA JAUNA PROZESUTIK KANPO UZTEA ETA DEIALDIA BETE GABE DEKLARATZEA

Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau onetsi zuen 2026ko otsailaren 4an:

Bat etorrita Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko industria-ingeniari teknikoen 3 plaza lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren 2.1.a) oinarriarekin, zeina Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak 2024ko azaroaren 22an emandako ebazpenaren bidez onetsi eta 2024ko 261. NAO-n, abenduaren 26koan, argitaratu baitzen, EBATZI DUT:

1. Antonio Izquierdo Somovilla jauna prozesutik kanpo uztea, Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finko ez izateagatik.

2.- Deialdia bete gabe deklaratzeari.

3.- Agintzea ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

a) Berraztertzearen errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an.-Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.